



# LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2021-2022

## EMOZIOEN LANKETA MUSIKA BALIABIDE IZANIK

Egilea: Onditz Goikoetxea Ucin

Zuzendaria: Cristina Arriaga Sanz

Leioan, 2022ko ekainaren 5a

## AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
2. MARKO TEORIKOA .....	2
2.1 Emozioen lanketaren garrantzia .....	2
2.2 Emozioen lanketa musika baliabide izanik.....	4
2.3 Musika adierazpen bide gisa.....	6
3. HELBURUAK.....	9
4. METODOLOGIA.....	9
5. ESKU HARTZEAREN PROPOSAMENAREN GARAPENA.....	10
5.1 Testuinguruaren analisisa.....	10
5.2 Proposamenaren nondik-norakoak .....	11
5.3 Proposamenaren garapena .....	12
5.4 Eguneroko informala. Nire bizi esperientziaren deskribapena.....	15
5.5 Ikasgelako parte hartzaileen ahotsak eta iritziak .....	16
6. ONDORIOAK .....	17
7. ETIKA PROFESIONALA ETA ADITUEN BABESA .....	19
8. BIBLIOGRAFIA .....	20

Emozioak testuinguruarekin ditugun hartu-emanek sortutako erreakzio moduan definitu daitezke. Hezkuntza emozionalak, gero eta garrantzi handiagoa izan arren, oraindik ere ez du osotasuneko ikusgarritasunik, curriculum orok oraindik ere ez baitituzte eduki emozionalak bere baitan hartzen. Emozioen lanketa honetan eragile garrantzitsu bat musika da. Musikak eragin handia du pertsonengan, bizipenetan, sentimenduetan, ezagutza prozesuetan, baita harremanen eraikuntzan ere. Lan hau, musikak irakasgai batetatik haratagoko esanahia duelaren adibidea izan da. Horretarako, ikasgela konkretu bati erreparatuz, esku-hartze bat diseinatu eta abian jarri da, musika baliabide izanik, norberaren burua ezagutzera eramanez, adierazpenak bultzatu eta ikasleen harremanak sendotzeko saiakera egin delarik.

*Emozioak, musika, adierazpena, musika hezkuntza, harremanak*

Las emociones pueden definirse como reacciones producidas por nuestras interacciones con el contexto. La educación emocional, a pesar de su creciente importancia, sigue sin tener una visibilidad de conjunto, ya que todo currículo sigue sin abarcar los contenidos emocionales. Un factor importante en este trabajo emocional es la música. La música influye mucho en las personas, en las vivencias, en los sentimientos, en los procesos de conocimiento e incluso en la construcción de las relaciones. Este trabajo ha sido un ejemplo de que la música tiene un significado más allá de una asignatura. Para ello, atendiendo a un aula concreta, se ha diseñado y puesto en marcha una intervención que, teniendo como recurso la música, se ha intentado que el alumnado se conozca a sí mismo, fomentar sus expresiones y fortalecer las relaciones entre ellos.

*Emociones, música, expresión, educación musical, relaciones*

Emotions can be defined as reactions produced by our interactions with the context. Emotional education, despite its growing importance, still lacks overall visibility, as emotional contents are not yet present in the entire curriculum. An important factor in this emotional work is music. Music greatly influences people, their experiences, feelings, knowledge processes and even on the construction of relationships. This work has been an example of music having a meaning beyond a subject. To this end, an intervention has been designed and implemented in a specific classroom, that counting on music as a resource, has focused on the knowledge of oneself, the impulse of the expression and strengthen students' relationships.

*Emotions, music, expression, music education, relationships*

## 1. SARRERA

“La música es la vida emocional de la mayoría de la gente”- Leonard Cohen

“La música es la taquigrafía de la emoción”- León Tolstoi

Txikitatik musika odolean erroturik izan dudala esango nuke, bizimodu bat izan da niretzat. Urte luzeetan zehar bidelagun izan dut uneoro, batzuetan nik behar izan dut bera, besteetan, berriz, nik eman diot zerbait berari. Hartu-emaneko harreman polita sortu dugula esango nuke geure artean. Musika erraietatik bizi dugun ingurune batean bizi naiz, eta aitortu beharrean nago, mundu honetan izan dudana iraupena ez dela musikak niri eman edota egin dizkidan ekarpenengatik soilik izan, baizik eta, besteei ere sortarazteko eta sentiarazteko izan dudana plazerragatik ere izan da. Musikak ezaugarri infinitu ditu eta horien artean sentiaraztea, norbanakoa ulertzen laguntzea, norbanakoa azaltzera ematea, elkar komunikatzeko laguntza eskaintzea eta elkarrengandik gozatzeko aukerak aurkeztea aurkitzen dira.

Azken urteotan ikusgarritasun gehiago ematen zaien arren, urte luzeetan zehar musikak eta emozioen lanketak duten garrantzia itzalpean ezkutaturik egon dira. Musika irakasgaia txirula jotzean laburbildu da sarritan eta emozioak ez dira aipatu ere egin egunerokotasunean. Erabaki eta ekintza guzti hauek behar pertsonal eta sozial ugari indargabetu dituzte beste zenbait alderdiri botere gehiago emanez. Azken aldian bi eragile garrantzitsu hauek argia ikusteko aukera gehiago izan dutela esan daiteke, baina, oraindik ere asko dago egiteke, ikasgeletan zein ikasgeletatik kanpo.

Musika gure barneko hariak mugitzeko gai da, baita era berean pertsonen arteko hari askeak elkartzekoa ere, harremanak eraiki eta sendotzeko balio handia duen tresna eraginkorra eta ezin hobea dela esan daiteke. Hori dela eta, borroka honi bultzada bat eman behar zaiola azpimarratzea ezinbestekoa da, emozioen lanketari zein musikaren balioari ikusgarritasuna eman eta hauen erabilera egokiak eskaintzen dituen onurez gozatzeko aukera ikustaraztea bermatu, benetan baliozkoa baita edonorentzat.

Aipatutakoarekin lotuta, diseinatutako proposamena Barakaldoko auzo batean kokatzen den eskola publiko bateko 5. maila batean jarri da abian. Proposamen hau, behatutako zenbait aspektu edota gakoetatik sortu edota planteatu da, non ikasleen sorkuntza, parte-hartze aktiboa eta harremanen lanketa eta sendotzea dituen oinarri. Musikaren laguntzaz emozioak lantzeaz gain, elkarrekiko entzutea eta errespetua ere landu dituzte ikasleek. Ildo beretik joz, txosten honek gaiari buruzko ikerketa, kezka, esku-hartzeen garapena eta bizipenez gain, zenbait ondorio ere jasotzen dituela aipatzekoa da.

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1 Emozioen lanketaren garrantzia

Emozioak jaiotzen garen unetik presente ditugu uneoro eta sarritan ohartzen ez garen arren, izugarriko efektua dute gure nortasunaren eraikuntzan, baita elkarreragin edota harreman sozialetan ere (López, 2005). Horren harira, Trujillo et al.-ek (2020) sentipen hauek egoki kudeatzearen garrantzia azpimarratzen dute, bizitzako arlo desberdinetan zer esan handia eragiten dutelako (Fernandez eta Extremera, 2002).

Iraurgi-k (2015) alderdi emozionala pertsona guztiok daukagula defendatzen du, nahiz eta hau pertsona batzuk garatuagoa izan, hau da, pertsona batzuk besteak baino emozionalagoak gara. Hala ere, emozioek gudan duten garrantzia azpimarratzen du, eta hauei behar adina arreta eskaintzen ez badiegu, gure alderdi handi bat baztertzen edota ukatzen ari garela dio.

Ez da lan erraza emozioak zer diren definitzea kontuan izanda jatorri anitz edo ezberdinetako fenomenoak izan daitezkeela (García, 2012). Uneoro gaude ingurunearekin kontaktuan, Bisquerra-k (2000) emozioak testuinguruarekin ditugun hartu-emanetan jasotzen dugun informazioaren aurrean gure barnean sortzen diren erreakzioak direla dio. Hauek sendotzat edota esanguratsutzat definitzen ditu, sarritan azkar hasi edota sortzen diren arren, iraupen laburra izan ohi baitute, hau da, kasu gehienetan epe laburrekoak dira.

Emozioez dihardugunean, pozaz, tristuraz, beldurraz, amorruez eta maitasunaz ari gara hizketan, oinarriko emozioez, eta hauek sentimendu ugari sentiarazten digute. Bakoitzak bere funtzioa du eta guztiak sentitu ditugu momenturen batean (Iraurgi, 2015). Hala ere, aditu bakoitzak oinarriko emozioak sailkatzeko modu ezberdinak dituela aipatzeko da, hain zuzen ere, Arriaga et al.-ek (2017) Paul Ekman psikologoari jarraiki beste oinarriko emozio batzuk zerrendatzen dituzte, hala nola, poza, tristura, gorrotoa, ezustea, beldurra eta nazka.

Momentu batez begirada bat atzera botako bagenu, urte luzeetan zehar sentimenduak tradizionalki femeninotzat eta irrazionaltzat hartu direla konturatuko gara, hori horrela, osagai kognitibo apalagotzat eta zenbait kasutan osagai intelektualen aurkakotzat ikusi izan direlarik (Trujillo et al., 2020).

Ildo beretik joz, Conejero eta al.-ek (2007) emozioak beti egon direla presente aldarrikatzen dute, baina, tamalez belaunaldietan zehar ez zaiela garrantzi berdina eman

azpimarratzen dute. Izan ere, psikologia arloan emozioen ikerkuntzak garrantzia izan duen arren urte luzeetan zehar bazterturik egon da, arrazionaltasunetik at ikusia izan delako. Hori dela eta, emozioek ibilbide luzea bizi eta zeharkatu behar izan dutela giza garapenean duen ezinbesteko pieza dela ikusi eta aitormena jaso arte esan daiteke.

Ibilbide luze honetan inflexio puntu esanguratsu bat nabarmendu daiteke, 1983an Gardner-ek proposatutako teoriarekin, adimen anitzak. Teoria honetan, hasiera batean, zazpi adimen identifikatu zituen, hala nola, linguistikoa, logiko matematikoa, espaziala, gorputz-kinestesikoa, musikala, pertsonartekoa eta intrapertsonala. Gero, zortzigarren bat gehitu zuen, adimen naturalista. Azpimarratzekoa da azken bi adimen hauek, pertsonartekoa eta intrapertsonala, emozioen eremukoak direla, eta gaur egun adimen emozionala deitzen dena osatzen dutela. Hala ere, kontzeptu hau Emotional Intelligence izeneko artikuluan garatu zen (Salovey eta Meyer, 1990), eta geroago, Daniel Goleman (1996) izan zen adimen emozionalaren kontzeptua zabaldu zuena (Goleman, 1996).

Adimen emozionala terminoak norberaren zein besteen egoera emozionala sentitu, ulertu, kontrolatu eta eraldatzeko gaitasunari deritxo, ez datza emozioak pilatzeari, baizik eta hauek modu egokian zuzendu eta orekatzeari (Cabello, 2011). Ideia honekin lotuta, Medinilla-k (2009) inpultso edota pentsatu gabeko bulkadei aurre egitea azpimarratzen du, benetakotasuna, harmena eta zintzotasuna erakutsiz. Goleman-ek, ordea, adimen emozionalari honako definizio hau ematen dio: “la capacidad de reconocer nuestros propios sentimientos y los ajenos, de motivarnos y de manejar bien las emociones en nosotros mismos y en nuestras relaciones” (Medinilla, 2009, 2. or).

Hori dela eta, Cabello-k (2011) azpimarratzen duen moduan adimen emozionalaz dihardugunean norbere buruaz kontziente izateaz hitz egiten ari gara, sentitzerako orduan zentzudunak izateaz, hau da, zer sentitzen ari garena ohartzeko gaitasuna izateaz. Ondorioz, ezin daiteke esan adimen hau egun batetik bestera eskuratzen edota bereganatzen denik, ezin baitugu ahaztu etxekoen eta eskolaren hartu emanen etengabeko lanaren fruitua dela.

Idea guzti hauek hezkuntzan islatuko bagenitu, hezkuntza emozionala tresna ezinbestekotzat eta garrantzitsutzat joko genuke, izan ere, hezkuntza hau haurren garapen emozionala sustatzean datza, garapen integralean funtsezko elementu gisa, bizitzako alderdi ezberdinetarako prestatzeko (Bisquerra, 2005).

Mendizabal-ek (2017) irakasteko eta ikasteko prozesuetan emozioen bidezko lanketa sartuz gero, emaitza hobetoak lortuko genituzkeela aldarrikatzen du, emozioei esker, gaiak

eta baliabideak hobeto transmititzen eta barneratzen direlako. Gainera, epe luzera begira, emozioak kudeatzen dakienak bizi osorako baliabide esanguratsua eskuratuko duela azpimarratzen du bizi-kalitatea hobetuz.

Hezkuntzak bere bilakaera izan duela begibistakoa da. Garai bateko hezkuntzak irakaslearen ezagutzak zituen oinarri, egungoak, ordea, ikaslea du erdigune, ikaslea du protagonista eta bere trebetasunak eta gaitasunak hartzen ditu kontuan irakaste prozesuan (Mendizabal, 2017).

Hori dela eta, hezkuntzak ongizate pertsonala eta soziala sustatzeko helburua izan beharko lukeela defendatzen du Mendizabal-ek (2017), emozioek komunikazioan, arretan eta memorian duten eragin handia goraiatuz. Hezkuntzaz diharduenean, ez dabil eskolako eremuaren inguruan soilik solasean, baizik eta edozein testuingurutan gauzatzen den ikaskuntzaz. Modu honetan bakoitzaren emozioak ezagutzeko, sentitzeko, ulertzeko, adierazteko eta modu egokian kudeatzeko gaitasuna eskainiko diegu haurrei. Emozioak kontrolatzea ezinezkoa da, baina, gogoan izan behar dugu emozioek sortzen diguten hori bideratu daitekeela eta hurrengan izan dezakeen eragina goraiatzekoa dela.

## **2.2 Emozioen lanketa musika baliabide izanik**

Ikaskuntza eta giza garapena prozesu pertsonal eta emozionalak dira, hein handi batean historiaz edota aurrekariez eta itxaropen inkontzienteez beterik daudenak. Emozioak, gizakion lehen mailako komunikazio baliabideak direla esan daiteke, hitzek baino balio edota esanahi handiagoa baitute sarritan. Hala ere, hitzek emozioekin bategitean, adierazteko zein elkar ulertzeko erraztasunak gehiago izaten dira, keinuez, irudiez, metaforez zein ahots tonuez lagundurik baitaude (Duncan, 2007).

Idea horretatik abiatuta, Igartua et al.-ek (1994) arteak, tresna sinboliko gisa definitzen denez, emozio anibalenteak eragiten dituela aipatzen dute. Honen ildotik, kontuan izan behar dugu, arteek, hitzik gabeko adierazpen guztien moduan, inkontzientzian ezkutaturik dauden esplorazioa, adierazpena eta komunikazioa bultzatzen dituztela. Esaterako, Albornoz-ek (2008) musikak norberaren pentsamendu emozionalak identifikatzen laguntzen duela azpimarratzen du.

Musika, kultura guztietan existitzen den hizkuntza ulertua da, ezinbestekoa irakasleen egunerokotasunean, hurren ulermenerako edota zorientasunerako komunikazio baliabide bat

baita (Panchi et al., 2019). Hau kontuan izanik, musika baliabide egokia bezain esanguratsua izan daitekela osotasuneko emozioen kudeaketan esan daiteke.

Campayo eta Cabedo-k (2016), hainbat adituren hitzetan oinarrituta, musikak eta emozioek oso lotura estua dutela diote, hori dela eta, haurren osotasuneko ikaskuntzan hezkuntza emozionalaren lanketan musikaren erabilerak zer esan handia duela aldarrikatzen dute. Horretaz gain, Juslin-ek (2003) musikak pertsonon jarreran ez ezik, norbanakoaren aldarrean ere eragiten duela defendatzen du. Izan ere, emozioak pertsonon pentsamendu, erabaki, harreman eta ongizatearen oinarri direla aldarrikatzen dute Buzzian eta Herrera-k (2014) gure egunerokotasuneko alderdi ezberdinetako erabaki zein eginkizunenen jatorri direlarik.

Ildo beretik joz, Saarikallio-ren (2011) ustetan bizipen emozionalak musikarekin uztartzen direnean gizabanakoaren garapen psikosozialean eta jarreran eragiten dute. Gainera, hainbat ikerketei erreparatu, Mosquera-k (2013) musikak urte luzeetan zehar pertsonengan zer esan handia duela argi geratu dela defendatzen du, arte honek norbanakoaren gorputz zein gogamenean eragiten duela, bakoitzarengan emozio positibo zein negatiboak eraginez. Ideia horri jarraiki, prozesu kognitiboetan musikaren erabilera bultzatuz gero hainbat ondorio positibo bermatuko genituzkeela azpimarratzen du, hala nola, oreka emozionala, autoestima bultzatzea, etab. non hauek norbanakoaren zein talde izaeraren hobekuntza sustatuko duten.

Valles-ek (2009) une batez musikak gure bizitzetan duen eraginaz edota paperaz pentsatzeko iradokitzen digu. Bere ustetan berehalako erantzun batekin topatuko ginateke, eta gainera, pentsamendu hau ingurukoekin partekatuz gero erantzun anitzekin aurkituko ginatekela aipatzen du, hauek guztiak benetakoak eta baliozkoak izanik, esperientzia musikala gizabanako bakoitzaren izaerari estuki lotuta baitago.

Musika, adierazteko eta komunikatzeko bide naturala dela dio Valles-ek (2009), lasaitasuna edo bizitasuna, dibertsioa, kultura eta ezagutza ematen eta eskaintzen ditu, baita harreman pertsonalerako aukerak zein identitate indibiduala eta kolektiboa baieztatu ere. Hori gutxi balitz, musikak erlaxazio fisikoa, estresaren murrizketa, zorientasuna, umore ona eta poztasuna eragiten ditu. Era berean, pertsona hobea sentiaraztea, ongizate emozionala eta fisikoa, bizi kalitate ona eta osasun fisikoa zein mentala ere ahalbidetzen dituelarik (Peñalba, 2017).



Johannes-ek (2010) musika ulertzeko modua hau nola ikusi eta sentitzen dugunarekin lotuta dagoela helarazten du, bakoitzak ematen dion esanahiaren arabera norbanakoaren emozioak aldatu egiten baitira. Hori dela eta, Juslin-ek (2003) musika lan baten aurrean egiten dugun interpretazioa, musika sentitzeko moduarekin estuki lotuta dagoela dio, baita bizitako esperientziekin ere, erantzun esanguratsuak azalertzeko bultzatzen baitu.

Bestalde, Peñalba-k (2017) gizakiak musika berezkoa duela azpimarratzen du, hau da, gizaki guztiok dugu musikarekiko joera naturala, eta hau sarritan hizkuntza garatu aurretik ere izaten dugula esaten du. Musikak, hizkuntzarekin lotura estua duen arren, beste hainbat alderdirekin ere begibistako konexioa edota hartu-eman du, besteak beste, irudimenarekin, gizarteratzearekin, koordinazioarekin eta psikomotrizitatearekin.

Aipatutakoa kontuan izanda, argi geratzen da musika baliabide edota tresna paregabea dela gizakiaren egunerokotasunean, emozioak eraginez garapen pertsonala, soziala eta intelektualean eragin positiboak bultzatzen baititu. Onura guztien artean beldurrak eta antsietateak arintzea, gorputza eta adimena indartzea, baita emozioen edota sentimenduen adierazpena erraztea aurkitzen dira (Yáñez, 2011). Guztiok ditugu barne borroka edo gatazkak, eta musika baliabide aberasgarria eta esanguratsua izan daiteke zurrumbilo hauen kudeaketari bidea egiteko.

### **2.3 Musika adierazpen bide gisa**

Hezkuntza-sistema orearen helburua testuinguruan oinarritutako hezkuntza bermatzea izan beharko luke, gizarte-premietara egokituko dena eta maila sozial zein pertsonalean pertsona integratuen, adimendunen eta askeen prestakuntzan oinarrituko dena. Hori horrela izanik, hezkuntza, pertsonen portaera ulertzeko oinarritzko alderdia dela esan daiteke, aldi berean, giza garapena bideratzeko eta gizarte-bizikidetzak bultzatzeko beharra dakarrelarik (Cabedo eta Díaz, 2015).

Ildo beretik joz, López-ek (2012) hezkuntzaren helburua pentsamendu kritikoa garatuko duten pertsonak heztea izan beharko lukeela aldarrikatzen du, errealitatea interpretatzeko gai izango direnak eta errealitate honen eragileak izango direnak. Modu horretan, hezkuntza garapen fisiko, sozial eta kognitiboaren bilketa bat dela dio, gizartearekin eskutik emanda ikusi beharko litzatekeena.

Aipatutakoa kontuan izanik, Cabello-ren (2011) ustetan, orain arte, eskolak arlo kognitiboa garatzeko ahaleginak egin dituela agerikoa da, eta horrek, sentiberatasuna, afektibitatea eta emozioak subjektuaren bizitzaren alderdi ahaztuak izatea bultzatu du, arlo intelektuala lehentasun gehiagorekin tratatua izan baita. Ildo beretik joz, hezkuntzaren baitan ere irakasgaien garrantziaren desoreka nabarmena dela azpimarratzekoa da, izan ere, Peñalbak (2017) dioen moduan, eredu kurrikular batzuek, matematika edota hizkuntza bezalako irakasgaiak lehenesten dituzte, beste zenbait bigarren mailakotzat utziz edota garrantzi gutxiago emanez, horren adibide da musika irakasgaia. Hori dela eta, Musika Hezkuntza urteetatik datorren krisi garai luzea igarotzen ari dela azpimarratzen du adituak.

Aurrerapauso batzuk gauzatzen ari diren arren, oraindik ere musikaren benetako balioa ezagutzera ez da eman, baina, azpimarragarria da Garzarelli-k (2011) tresna garrantzitsutzat jotzen duela arte hau, errealitatea irudikatzeaz gain errealitatea bera ulertzeko lanabes moduan ikusten baitu. Hori dela eta, musikak izaera unibertsala duela esan daiteke.

Idea horri eutsiz, Marina eta Bernabeu-k (2007) normalean arte hezkuntza kompetentzia kultural eta artistikoen barneraketan oinarritzen dela sinestarazi digutela aipatzen dute, baina, arte hezkuntzak bestelako eduki edota kompetentziekin lotura zuzenagoa duela aldarrikatzen dute, izan ere, artearen ikaskuntzak eta bizipen artistikoetan parte-hartzeak gure gizartean hain garrantzitsuak diren kompetentziak bereganatzea bultzatzen du. Kompetentzia hauek sozialak eta zibikoak dira, hau da, besteengana modu eraginkor batean zuzentzeko gaitasunari deritzo, komunikazioan oinarritutako harremanetan ongizatea eta bizikidetzaren bermatuz. Modu horretan, Conejo-k (2012) arte hezkuntza eta, bere baitan jasotzen den musika-hezkuntza, tresna boteretsu eta baliagarriak direla baloreen heziketa sustatzeko azpimarratzen du, aurretiaz aipatutako gaitasunak behar bezala eskuratzea bermatzen dituelako.

Arriaga et al. (2020) ere iritzi berekoak dira, hainbat adituren ideietan oinarrituta musikak funtzio asko dituela azpimarratzen baitute, adimena aske uzten laguntzeaz gain, norberaren sentimenduak adierazteko eta komunikatzeko erraztasunak ahalbidetzen dituelako, baita dimentsio emozional, instintibo eta espiritualerako sarbidea edota bultzada erraztu ere. Hori dela eta, musikak hainbat esperientzia edota bizipen eskaintzeaz gain emozioen eta gorputzaren arteko zubia izan daitekeela aldarrikatzen dute.

Conejo-k (2012) musika, beste zenbait gauzen artean adierazpenerako eta komunikaziorako bidea dela azaltzen du, baina, baliabide honetan hainbat alderdik hartzen

dutela esku dio, hala nola, denborak, soinuak, erritmoak eta mugimenduak. Ildo horri jarraiki, Adiles-ek (2012) musikak adierazpenarekin duen lotura azaltzen du. Erritmoa, melodia, harmonia eta kolorea landuz energia ezberdinak aktibatzen direla dio, esaterako, mugimendua.

Adierazpena lantzeko baliabide bat gorputza da. Gorputzaren adierazpenari buruz dihardugunean, norberaren bizipenak ikertu edota aztertu, onartu eta besteekiko komunikaziora bideratutako dimentsioan arreta jartzeari esaten diogu, horretarako, ezinbestekoa da pertsonen arteko desberdintasunak onartzea, baita errespetuzko giroa bermatzea ere (Stokoe, 1990). Arriaga et al.-ek (2020) beste hainbat adituen iritzia kontuan izanik, bizipenen perspektiba hau kontuan izanik norberaren gorputzean, besteak beste, poza, tristura edota lotsa bezalako emozioak esperimintatzeko eta identifikatzeko aukera bikaina dela aldarrikatzen dute, emozioek norberaren autoezagutzan aurrerapenak eskaintzen baitituzte, bai norberaren identitatearen bilaketan eta baita besteekiko harremanen eraikuntzan ere.

Horretarako, ezinbestekoa da bai gorputzari eta baita musikari ere bere espazioa ematea, musikari jarraiki gorputza mugitzeak barne bidaia batean murgiltzea ahalbidetzen du, non bidaia hau norberaren zein barneko gaitasunen aurkikuntzan oinarritzen den (Rossi, 2006). Ikuspegi edota planteamendu honek adituak dioen moduan entzute kontzientea eskatzen du eta aipatzekoa da ezaugarri hau zuzenki loturik dagoela norbera zen besteak entzuten jakiteko gaitasunarekin.

Touriñan eta Longueira-k (2009) egun sentimenduetan oinarritzen den hezkuntza baten hutsunea agerikoa dela aipatzen dute, sentimenduak oinarri hartzen dituen hezkuntzak haurrengan enpatia, afektua eta arreta garatzea ahalbidetuko diela azpimarratuz, bai norberarenganako zaintzan eta baita besteenganakoan ere. Ortega-k (2005) dimentsio afektiboa berreskuratu behar dugula aldarrikatzen du, beste hezkuntza bat behar dugula dio, sentsibilitatean eta adeitasunean oinarrituko dena eta gelako gatazken kudeaketan baliagarria izango dena.

Fernández eta Jorquera-k (2017) Elliott-en (1995) hitzetan oinarrituta azpimarratzen duten moduan, musika edonork eskuragarri dugun baliabide esanguratsua da, baita ikasleek ere, eta irakasleek lana da honen erabilera egokia bermatuz ikasleen musikaltasuna bermatzea. Gainera, ebidentzia neurozientifikoetatik abiatuta, Peñalba-k (2017) musika gizakion behar naturala edo berezkoa dela dioten heinean, hezkuntzan orokorrean lekua

izateaz gain modu inklusibo batean planteatu behar dela azpimarratzen du, haur guztiek eskura izan dezaten.

Touriñan-ek (2011) arteen eta hezkuntzaren arteko harremanetan aldaketak egon direla aipatzen du, izan ere, harreman hauen helburua jada artearen izaera integrala, adierazkorra eta baliotsuaren ideia transmititzea da, giza esperientzien adierazpen kultural eta esperientzia indibidualean oinarrituko dena, artistak edota pertsona profesionalak eraiki beharrean. Bestalde, Touriñan-ek (2011) arte hezkuntzaren helburua hezkuntza-prozesuan gaitasun batzuk eskuratzea dela aipatzen du, non gaitasun hauek hezitzaileari bizi esperientzian zehar erabakitzeko eta gauzatzeko tresnak eskuratzea ahalbidetuko dion, baita, esperientzia artistikoa norberaren eraikuntzan eta prestakuntzan oinarritzea ere.

### **3. HELBURUAK**

Lan honen helburu nagusia Lehen Hezkuntzako gela batean emozio eta musikarekin esperimentatu ondoren parte hartzaileek izan dituzten bizipenak eta pertzepzioak esploratzea da. Horretarako, helburu nagusi honen baitan honako azpi-xede hauek zehazten dira:

- Ikasleen errealitate musikalera hurbiltzea konfiantzazko giro bat sortuz haiengan dituzten aukera musikalak ezagutzeko.
- Emozioak lantzeko jarduera berriak diseinatzea musika baliabide izanik, eta era berean musikak beste eduki andanekin ere lotura duela ikustaraztea, hala nola, arte plastikoarekin, hezkuntza emozionalarekin zein imajinazioa edota irudimenarekin.
- Jarduera erakargarrien bidez ikasleak motibatzea eta ohituta ez dauden adierazpenetara bultzatzea.
- Jarduera ezberdinen bidez ikasleen arteko harremanetan eragitea eta elkarren arteko errespetua sustatzea.

### **4. METODOLOGIA**

Jarraian azalduko den esku hartzearen diseinuak ikuspegi kualitatibo bat du oinarri. Lehen aipatu den moduan, bere helburu nagusia musikaren bidez emozioak sustatu eta azaleratzea da, baita ikasleen arteko harremanetan esku hartzekoa ere. Horretarako, proposamen bat diseinatu da, non hainbat jarduera ezberdin aukeratu edota diseinatuko diren, ondoren Lehen Hezkuntzako 5. mailan praktikan jarriko direnak. Azkenik, sentimendu eta

inpresio horien zantzuak jasotzen saiatuko gara, ikasle bakoitzaren zein taldearen jarraipena eginez.

Esku hartzeko proposamen hau egin ondoren jasotako emaitzak aztertuko dira, gaiari buruzko ondorioak atera ahal izateko. Proiektu honen aurrean ezinbestekoa izan da musikako irakaslearen laguntza, ikerketa-ekintza deritzon metodologiari jarraituz (Carr eta Kemmis, 1988), saio bakoitzaren ondoren elkartu eta hauez solastu zein hausnartzeaz gain, hurrengo saioei begira alderdi desberdinak kontuan izanik hobekuntzak egiteko planteamenduen inguruan ibili baikara lanean. Azkenik, esku hartze proposamena baloratzeko gertatutakoa ikasleekin aztertu eta eguneroko informal batean idatzita jaso da.

## **5. ESKU HARTZEAREN PROPOSAMENAREN GARAPENA**

Esku hartze proposamen hau gelaren ezaugarri eta lan erritmoaren arabera sortua izan da. Jarduera sorta honek modu ezberdinetan musikaren bitartez gure buruarekin konektatzea ahalbidetzen du, sentipenak edota emozioak identifikatu eta hauei ikusgarritasuna edota irudikapena eman. Era berean, taldearen kohesioa eta elkarren arteko errespetua ere bultzatzen da. Amaitzeko, aipatzekoa da jardueren ezaugarriei erreparatuz, sormenak ere bere lekua hartzen duela, jarduera gehienek bat-batekotasuna zein irudimena eskatzen baitute. Lehen esan bezala, proposamena baloratzeko, gertatu den guztia eguneroko informal batean jaso da eta irakasle zein ikasleen ahotsak ere aztertu dira.

### **5.1 Testuinguruaren analisisa**

Esku hartze proposamen hau Barakaldoko auzo batean kokatzen den eskola publiko batean ipini da abian. Ikastetxe honek Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapak hartzen ditu barne, bere osotasunean nahiko eskola txikia dela esan daiteke, zenbait mailatan bi lerro dauden arren, maila gehienak lerro bakarrekoak baitira.

Ikastetxeko errealitateari so egin ezker, aipatzekoa da bertako ingurune kulturala oso anitza dela, ikasleen ehuneko kopuru handiena etorkina edota guraso etorkinen haurra baita. Orain arte B ereduko eskola publikoa izan den arren, aurtan D eredu izatera bilakatu da, hori dela eta, trantsizio honetan agerian geratzen da euskara maila baxua, ia guztien kasuan hau ez baita ama hizkuntza eta era berean eskolako testuingurunetik at gaztelania gailentzen delako bereziki. Orokorrean eskola hau osatzen duten familien egoera sozio-ekonomikoa baxua da, izan ere, gehienek kasuan familia nahiko desegituratuak aurkitzen dira. Hori kontuan izanik,

haur bakoitzak bere motxila etxetik nahiko kargaturik dakarrela begibistakoa dela esan daiteke.

Aurretiaz aipatu den moduan, diseinatu den proposamena 5. mailan ipini da abian. Gela hau 10-11 urte bitarteko 19 ikaslez osaturik dago, hain zuzen ere, 7 neska eta 12 mutilerik. Eskolako gela guztiak behatu eta musika irakaslearekin hitz egin ostean bat etorri ginen emozioekin lan egiteko gela hau aproposa izan zitekeenaren ideiarekin.

Ikastetxera heldu nintzenean gorputz perkusioarekin ari ziren lanean, irakasleak emandako zenbait sekuentzia erritmikorekin koreografia bat osatu zuten jarraian emaitza bideo batean laburbiltzeko. Ondoren, Santa Ageda egunaren etorrera zela eta Agate Deuna abestia lantzen egon ziren pare bat astez. Egonaldi honetan zehar, ikasgelan normalean paper aktiboa irakasleak duela ikusi dut, irakaslearen zeregina bidelagunarena den bitartean. Dena den, aktibotasun hori gehienbat irakaslearen jarraibideak jarraitzean oinarritzen zen. Adibidez, irakasleak argibide batzuk eman ostean haurrak lanean hasten dira eta hau ikasgelan zehar mugitzen da euren beharrak eta zalantzak asetu nahian. Hori dela eta, egondako estantzia ez dela sormena, adierazpena edota prentsamendu kritikoa lantzen den momenturik pertzibitu esan daiteke.

Orokorrean irasleek euren artean harreman ona duten arren, batzuen jarrera arazoek eten egiten dute ikasgelako giroa eta horrek eragin zuzena izaten du zenbait kasutan lan egiteko orduan ere. Bestalde, aipatzekoa da lanerako grina duten irasleak direla baita irudimen handiko haurrak ere, baina, aipatzekoa da sarritan zailtasunak izaten dituztela barruan duten hori ingurukoei helarazten edota kudeatzen. Hori dela eta, musika irakasleak eta biok emozioak lantzeko gela egokia zela pentsatu genuen, norberak barruan duen barne borroka edo zurrumbilo hori hauteman edota identifikatu eta adierazpen ezberdinak bultzatzera emateko.

## **5.2 Proposamenaren nondik-norakoak**

Ikastetxeko errealitatea behatu ostean eta helburuak presente izanda (hau da, irasleen gustu musikaletatik abiatuta jarduera sorta bat diseinatzea musika lagun izanik hezkuntza emozionala lantzeko eta gertatutakoa jasotzeko), ariketak diseinatzeari ekin genion.

Esku hartze proposamenaren asmoa musika baliabide izanik emozioak lantzeko bide ezberdinak hartu daitezkeela ikustaraztea zen, hori dela eta, alderdi edo arlo ezberdinetatik bideratutako ariketak proposatu dira, hala nola, idatzizkoak, hitzezkoak, marrazki bidezkoak, egunerokotasunean aurki daitezkeen tresnak erabiliz edota gorputzaz baliatuz. Ariketa

bakoitzean azalpenak laburrak eman dira, nahiz eta tarteka adibideak eman, ariketa bakoitzaren aurrean ikasleen erantzuna ahalik eta puruena edota gardenena izatea bilatzen zelako. Bestalde, jarduera bakoitzak solasaldirako edota tertulia dialogikorako tartetxo bat ere eman digu, bizipenak kontatu edota sentrazioak adierazteko, eta zenbait kasutan pentsamendu edota iritzi batetatik haratagoko hizketaldiak ere sortu izan dira.

Sekuentziari hasiera emateko ikasleen gustu musikaletatik abiatzea adierazgarria bezain esanguratsua izan dela eurentzat esan daiteke, protagonisten moduan sentitu izan direla pertzibitu izan baitugu eta elkarren artean euren gustuak edota ezagutzak elkarbanatzeak poztasuna ematen zielakoan gaude. Aldi berean, klasea bukatu aurretik tarte bat erreserbatu da beti ikasleei entzuteko eta hauen bizipenak edota emozioak islatzen saiatu ondoren komentatu ahal izateko.

Esku hartze proposamena aurrera eramateko lau klase behar izan dira. Lehen aipatu den moduan, musika irakaslearen laguntza ezinbestekoa izan da proiektu honetan klase bakoitzaren ostean gertatu dena komentatu eta hurrengo asteari begira hobekuntzak edota bere gomendioak jasotzeko. Guztia eguneroko informal batean idatzi da.

### **5.3 Proposamenaren garapena**

#### 1. Abesti gustukoena

Ikasleen musika gustuak ardatz hartuta, lehenengo saioari norberaren abesti gustukoenez solasean ekin genion. Horretarako, norberak bere barnera begiratu eta abesti horrek eragiten zizkion sentazioez hausnartzea ezinbestekoa izan zen. Zenbait galderez osatutako orri bat prestatu genien hausnarketa bidaia horretan laguntza edota euskarri moduan erabil zezaten.

Bakoitzak bere denbora eta espazioa izan zuen bere barne gogoetetan murgiltzeko eta jarraian animatzen zenak bere abestia aurkezteko aukera izan zuen. Ikasle ugari animatu ziren euren abestiari buruz hitz egitera.

Lehenik eta behin, abestia aurkeztu zuten eta jarraian abestiaren eta euren arteko loturaren gogoeta azaltzen zieten elkarri. Horren ondoren, abestia ipintzen genuen besteek ere entzuteko eta ezagutzeko aukera izan zezaten. Jarduera honek, norberarekiko behaketa eta ikaskideen arteko errespetua eta entzuten jakiteko gaitasuna bultzatzeaz gain, musika estilo ezberdinak ezagutzeko aukera ere eman zigun besteak beste. Izan ere, nahiz eta eurek aukeratutako abestietan gehienbat reggaetoi generoa gailendu, zenbait kasutan beste estilo

ezberdinak ere entzun genituen, baina, aipatzekoa da euskal musikak ez zuela lekurik izan euren artean.

## 2. Ipuin musikatuak

Bigarren jarduera ipuinak musikatzea izan zen. Horretarako, ikasgela lau talde ezberdinetan banatu zen, eta bakoitzari ipuin labur bat eman zitzaion. Gehienek kasuan lehenengo kontaktua izan zen jarduera estilo honekin, hori dela eta, lanean hasi aurretik adibide bat ipini genien ariketaren nondik-norakoak ikusi eta ulertzeko. Adibidean, ipuinean gertatzen ziren pasarte edota gertaerak soinu bidez lagunduak agertzen ziren, esaterako, sagu bat aipatzean animaliaaren soinua ageri zen, edota pertsonaia izutu zela esan zuenean ezustearen sentsazioa transmititzen zuen soinua entzuteko aukera izan zuten. Gustura ekin zioten jarduerari, dibertigarria iruditzen zitzaie ipuinen pasarte ezberdinei imajinazioa erabiliz soinu edota ahots ezberdinak ipintzea.

Talde bakoitzak bere ipuina osotasunean irakurtzeari ekin zion, esaldi edota paragrafo bakoitzerako soinu ezberdinak adostuz. Jarraian, bat etorritako soinu horiek frogan ipini zituzten eta elkarren artean aldaketak edota hobekuntzak proposatzeko aukera ere izan zuten. Talde bakoitzak ikuskizuna prest zuenean, guztion aurrean banan-banan aurkeztu zuten. Aurkezpena askea izan zen, batzuk ikusle goari begiak ixteko eskatu ziguten, besteek, berriz, eserita egin zuten seguruago sentitzen zirelako, beste zenbaitek, ordea, gure inguruan biraka.

Ipuin musikatu guztiak deigarriak suertatu ziren, ikasleek ipunitako gogoia eta aldi berean egiten ari ziren horretan disfrutatzen ari zirela begibistakoa zen. Amaitzeko, musikak irudimena edota imajinazioarekin duen loturaz hitz egiten jardun ginen, baita musikak errealitateatik at egiteko duen gaitasunaz ere.

## 3. Entzun, sentitu eta marraztu

Hirugarren saioari dagokionean, abesti bat entzunez (<https://youtu.be/4VR-6AS0-14>) marrazki edota margolan bat egitea proposatu zen. Ariketa honen helburua bat-batekotasuna lantzeaz gain, momentuan sentitzen zuten hori orrialde zuri batean islatzea zen. Abestia hiruzpalau aldiz ipini genuen kantuan gehiago murgildu eta lasai marrazteko denbora izan zezaten. Jarraian, animatzen zenak bere marrazkia erakutsi eta sentitutakoa nola islatu zuen deskribatzeko aukera izan zuten. Gelako giroa oso atsegina izan zen, intimoa, isiltasunean kontzentratu nola marrazten zuten eta ikaskideen aurrean nola irekitzen ziren ikusteak ez zeukan preziorik. Beste jardueretan bezala, ariketari itxiera emateko hizketaldi txiki bat



zabaldu genuen, eta bertan abesti batek pertsona bakoitzari sentipen desberdinak eragin diezaizkiokelaren ondoriora iritsi ginen.

#### 4. Irudiak musikatzen

Aurreko jardueran abesti batetik irudi bat sortu ondoren, oraingoan jarduera alderantziz egitea proposatu genuen, hau da, irudiei soinua ipintzea edota sortzea. Horretarako, ikasgela lau taldetan banatu eta bakoitzari irudi bat egotzi zitzaion. Irudiek hondartza bat, diskoteka bat, tennis partida bat eta gerra bat jasotzen zuten. Euren eginbeharra irudiak islatzen zuen testuinguruan kokatu eta bertan entzun zitezkeen soinua egitea zen.

Jarduerari hasiera emateko patioa jaitsi ginen eta talde bakoitza txoko batean bildu zen ekarritako objektu edota tresnekin zer egin zezaketen esploratzeko. Talde ezberdinen artean objektuak elkartrukatu ere egin zituzten egokitasunaren arabera. Soinu konposizioak martxan hasita iradokizun batzuk eman genizkien hobekuntza edota laguntza gisa. Behin talde guztiak prest zeudenean borobil batean eseri eta begiak itxi genituen, talde bakoitzak bere soinua irudikapena egin eta besteok zein irudiri zegokion asmatzen saiatzeko. Amaitzeko, talde bakoitzak soinua bakoitzarekin zer irudikatu nahi izan zuen azaldu zuen.

#### 5. Gorputz adierazpena

Jarduera sekuentzia honi amaiera emateko gorputz adierazpenari ekin genion. Eguraldi ona zela medio eta patioak askatasun sentazioa dakarrela eta, bertara jaistea erabaki genuen, haurrak gusturago lan egin zezaten. Ikasleek begiak itxi eta lurrean etzateari ekin zioten, momentu horretan, ibai batean flotatzen zeuden objektu bat zirela azaldu genien, orduan, adibide moduan ahozgora ibai batean aurki ditzakegun objektu ezberdinak (makilak, enborrak, plastikozko poltsak,...) zerrendatu genituen jarraian bakoitzak nahi zuena aukera zezan. Ondoren, pieza instrumentala ipini genien (<https://www.youtube.com/watch?v=4k38VUnkzJ0>) bakoitzak lasaitasunez entzun eta paisaia hori imajinatu zezan. Behin pieza esperimentalak entzunda, lekutik mugitu gabe zutik ipintzeko eskatu eta ibai bateko objektu hori zirela imajinatuz eta musikari jarraiki sentitzen zuten hori gorputzeko mugimenduen bitartez adierazteko iradoki genien.

Pieza esperimentalak amaitu zenean ea nola sentitu ziren galdetu zitzaion, gehienek ahoetatik erantzun positiboak jaso genituen. Egia da ikasleak zertxo bait aztoratuta ikusi genituela, baina, ariketa honek ere bat-batekotasuna, askatasuna eta sormena eragiten ditu eta horren aurrean ez genuen mugarik ipini nahi izan. Jarraian, ariketa berbera begiak irekita egin ezkerreko emaitza berbera izango ote zen galdetu genien eta erantzuna ezetza izan zen. Erantzun

horretatik abiatuta emozioak azaleratzearen lotsa kontzeptuaz jardun ginen hizketan, eta egia aitortu behar badugu guztion artean solasaldi atsegina sortu zela esan dezakegu.

#### **5.4 Eguneroko informala. Nire bizi esperientziaren deskribapena**

Bizitako esperientzia aberasgarritzat definituko nuke, hala ere, aipatzekoa da erronka bat izan dela proiektua ikasgela honekin aurrera eramatea, izan ere, aurretiaz aipatu dudan moduan ez da gela erraza, sarritan ikasgelako giroa hausten duen jarrera arazoak izaten dituzte eta horrek planteatutako jardueretan oztopoak suposatuko zituelaren beldur nintzen. Dena den, azken finean proiektua horretan zetzan, inguratzen gaituen errealitatetik abiatutako hariak mugitu, landu, egiten ari garen horretan sinetsi eta heztea. Hein handi batean aurretiaz proposatuta genituen helburuak bete direla pentsatzen dugu tutoreak eta biok.

Proiektu osoan zehar, musikako irakaslearen babesa eta laguntza izan dut uneoro. Esku-hartzea aurrera eramateko taldea aukeratzeko orduan bere iritzia kontuan izan dut, izan ere, ikasle talde bakoitzarekin astean saio bat izatea laburra suertatzen zitzaidan bakoitza ezagutzeko, hori dela eta, irakasleak orokorrean taldeen zein ikasle bakoitzaren errealitateak edota motxilak aurkeztu dizkit eta aipamenak ezinbestekoak izan dira hausnarketak egin eta partaideak aukeratzekoan.

Saio bakoitza ebaluatzen ibili gara aurrera begira hobekuntzak proposatzeko asmotan eta orokorrean klaseen artean bilakaera positiboa egon dela esango genuke. Eboluzio hau poliki-poliki norberak bere buruarengan zein talde izaeran sinetsi dutelako izan dela esatera ausartzen gara, izan ere, lehenengo saioan ikasleak ez ziren gai ikusten emozioak bezalako gai konplexu baten lanketan murgildurik, oso zaila iruditu zitzairen proposatutako erronka. Baina, jada proposamena amaitu ostean atzera begiratuta eurak ere ohartu dira lortu dutela musikaren bidez euren barnera begiratu eta barruan duten hori modu ezberdinetan kanporatu eta elkarrengandik ulertuak eta errespetatuak sentitzea. Saioz saio jardueretan gero eta gehiago inplikatu direla ikusten joan gara. Baina inplikazioaz gain, argi geratu da gelako giroa atseginagoa zela, eta errespetua eta interes handiagoa erakusten zutela, bai musikaren aldetik eta baita musika bizitzeko modutik ere.

Bestalde, proiektu honetan zehar izandako areririk handiena denbora izan dela esango nuke. Ikasleek astean musika saio bakarra izaten dute, ordu batekoa. Irakasgaia bazkalostean izaten da eta sarritan saioari hasiera emateko minutu dezente joaten dira, baita, espazioaren egokitasunagatik lekuz mugitu behar izan garen uneetan ere. Honek guztiak, denboraren etsai eta presiopean ibili garenaren sentsazioa eragin dit. Azken finean, bakoitzak

norberaren barrura begiratu eta entzuteak, zer eta zergatik sentitzen duen identifikatzeak eta hau nola bideratu eta transmititu jakiteak bere denbora eskatzen du, aldi berean, pertsona bakoitzak berea ere behar duenean. Hori dela eta, denbora gehiago izan ezkeror arlo gehiago landu eta egindakoetan gehiago sakontzeko aukera izango genukeela aipatzekoa da, baina, izandako esperientzia hau etapa berri baten hasiera izan daitekeela ere esatera ausartzen naiz.

### **5.5 Ikasgelako parte hartzaileen ahotsak eta iritziak**

Ikasleei saio bakoitzaren ostean euren burua nola ikusi eta sentitu duten galdetzeaz gain, hurrengo egunei begira zein hobekuntza edota aldaketa proposatu edota iradokitzen zuten galdetu izan zaie uneoro. Hala ere, esku hartzearen amaieran inkesta moduko orrialde bat banatu zaie prozesua orokorrean nola bizi izan duten eta emozioen inguruko pertzepzioa aldatu zaien ezagutu eta behatzeko.

Proiektuaren ebaluazio bikainena ahozgoran egitea iruditzen bazitzaigun ere, hala iritzi ezberdinak partekatuz elkarrizketa bat sortzeko aukera izango genuen, galderez jositako orrialde bat banatu zitzaizen anonimoki erantzunak gardenagoak izango zirela pentsatu genuelako. Hala ere, erantzunetan euren iritzia islatzeko edota azaltzeko zailtasunak ikusi ditugu, hauek motzak eta ongi arrazoitu gabeak izan baitira, baina, euren ahotsa kontuan hartzeko modu bat izan da eta galdera bakoitzarekiko duten iritzia argi pertzibitzen dela ikus daiteke.

Ikasleen iritziari so eginez, orokorrean erantzun positiboak jaso direla aipatzekoa da. Gehienak gustura eta pozik aritu dira saioetan eta musikaren bidezko emozioen lanketa dibertigarria eta garrantzitsua iruditu zaie. Gainera, bizitako esperientzia aberasgarria eta berezia iruditu zaiela aitortu dute, zalantzarik gabe berriz ere errepikatuko luketela azpimarratuz. Aste hauetan zehar bizitakoa orain arte musika saioetan egindakoarekin alderatuta zeharo desberdina izan da eta horrek ikasleen artean interesa eta lanerako motibazioa piztu du. Gainera, haurrek musika zerbait eraginkorra eta berezia dela adierazten dute eta hau erabilgarria izan daitekeela gure eguneroko bizitzan aldarrikatu: “Musika garrantzitsua da, sentitzen laguntzen du, erlaxatzen eta elkar hobeto ulertzen. Gainera, egindako ariketak dibertigarriak izan dira eta asko disfrutatu dut”.

Baina, erantzun positibo hauen atzean, hiru aitormen ezberdin agertu direla aipatzekoa da. Galdera sorta horretan bi galderek ea emozioen lanketa egunerokotasunean beharrezkoa iruditzen zaien eta eskolan horretarako tartetxo bat hartzea egokia den aipatzen dute. Galdera hauen aurrean ikasle hauen erantzuna ezetza izan da, eurak ez dutela behar eta

eskola *ikastera* joateko dela azpimarratuz. Erantzun horien ildotik joz esperientzia erdi dibertigarria izan den arren ez luketela errepikatuko aipatzen dute.

Musika irakasleak, berriz, lehenengo momentutik pozarren hartu zuen proposamena, ikasle taldeari onura edota aportazio itzela egingo niola uste zuela aipatu zuen, gainera, proposatutako ariketak esanguratsuak iruditu zitzaizkion adierazpen ezberdinak bultzatzen zituela nabaritu zuelako. Prozesu guztietan presente egon denez, lehenengo pertsonatik ikusteko aukera izan du proiektua eta orokorrean oso ongi gauzatu dela aipatzen duen arren, gorputz adierazpenaren ariketan gelan anabasa sentitu zuela azaldu zuen, ni ere iritzi horrekin bat nentorrela helarazi nion haurrak aztoraturik azaldu zirelako eta une batzuetan seriotasuna edota eraginkortasuna zalantzan jarri nuelako. Hau da, begibistakoa zen haurrak dibertitzen ari zirela, baina, batzuen jarrera gehiegikerian erori zela esan daiteke. Aipatutako guzti honekin, ondorio batera iritsi ginela aitortu beharrean nago. Sarritan egoera edota testuinguru berri baten aurrean deseroso edota urduri sentitzen gara, orokorrean ezjakintasunak eta batzuetan urduritasunak emozio hauek sortarazten bait dizkigu. Ezjakintasun honen aurrean izaten dugun erreakzioa barrez hastea edota lelokeriak egiten hastea izaten da askotan, baina, horrek ez du esan nahi egoera horrek barregura ematen digunek, baizik eta inkontzienteki helarazten den erreakzioa edota bulkada izaten da.

Gertatutakoak gertatuta, proiektua baliagarritzat definitzen du irakasleak eta hurrengo urteei begira berrerabiltzeko ideia ez du atzean uzten.

## 6. ONDORIOAK

Informazio bilketa egin ondoren eta jasotako zantzuen azterketa kualitatiboa egin ostean, hainbat ondorio orokor atera dira, jarraian azalduko direnak. Horrez gain, pertsonen ahotsetan islatutako iritzietatik abiatuta hobekuntza proposamen bat proposatuko da planteamenduari aurrerantz egiteko bidea iradokiz.

Aipatzekoa da urte luzeetan zehar emozioek ez dutela lekurik izan gure artean, egunerokotasunean beste zenbait alderdiri garrantzi gehiago eman diegu eta horrek gure barnean hain garrantzitsua den alderdiari ezkutuan geratzea bultzatu dio. Emozioen presentzia falta, gizarte mailan ez ezik, eskolan ere nabarmentzen da, curriculum orok oraindik ere ez baitituzte eduki emozionalak bere baitan hartzen. Azken urteotan emozioen lanketaren garrantzia botere gehiago hartzen ari den arren, urte luzeetan izandako sinesgabetasunak haur batzuegan eragina izan duela esan daiteke.

Proiektuari amaiera emateko banatutako inkestan, galderetako batek ea egunerokotasunean emozioen lanketa beharrezkoa ikusten zuten eta eskola ingurune egokia iruditzen zitzaieen galdetzen zuen. Gehienek kasuan erantzun positiboak jaso ziren arren, hainbat ikasleek emozioen lanketa ez zutela beharrezkoa ikusten adierazi zuten, eta gainera eskola ez zela emozioekin lanean aritzeko leku aproposena aldarrikatu zuten, eskola ikasteko delako. Erantzun hau esanguratsua suertatu zen eta bertatik norbanakoak “ikasteko” kontzeptua ikuspegi desberdinetatik begiratzen duela konturatu gara. Mendizabal-ek (2017) eskolan hezkuntza emozional egoki bat eskaintzea beharrezkotzat jotzen du, ikasketa prozesuan garrantzi handia ematen baitio haurrak bere burua ezagutzeari, baita, egunerokotasuna partekatzen duten pertsonak ezagutzeari ere, elkar berri izatea ezinbestekoa baita kohesioa, errespetua eta enpatia sortu edota eraiki ahal izateko.

Idea honi jarraiki, Perrenoud-ek (2012) ikasleak errealitateko momentu desberdinetarako prestatuko dieten hezkuntza bat eskaini beharra defendatzen du, egoera ezberdinak kudeatzeko gai izaten lagunduko diona. Hori dela eta, ikaskuntza prozesuan bizitako esperientziez eta gertakizunez hausnartzea eta elkarrizketa osasuntsu baten moduan elkarbanatzeak gure egunerokotasuna aberasten duela aipatzekoa da, elkarren arteko harremanak sendotzeaz gain, gure barrenak koloreztatzeak aukera ematen baitu.

Bestalde, orokorrean diseinatutako esku hartze proposamenak bere osotasunean gauzatu eta emaitza positiboak izan dituela azpimarratzekoa da, hala ere, egia da bai bizitzan eta baita hezkuntzan ere batzuetan gauzak ez direla nahi bezala edota espero bezala ateratzen, baina, Biesta-k (2017) dioen moduan, pertsonekin ari gara lanean eta hezkuntzan gauza berriak egitean dena ez da bermaturik izaten. Ildo honi jarraiki, aipatzekoa da sarritan guztia kontrolpean izan nahi dugula, eta gainera lortu nahi den emaitza lehenengo momentutik pertzibitu nahi izaten dugula. Ezinbestekoa da azpimarratzea gauza berriek denbora behar dutela, barneraketa prozesu bat dago oinarri eta prozesu guztiek euren denbora eskatzen dute ondo gauzatu ahal izateko.

Bizitzan bide askorekin egiten dugu topo eta batzuetan aurrera joateko atzera pausu batzuk ere egin behar izaten dira. Askotan zenbait ekintza baliogabetzat jotzen ditugun arren, etorkizunari begira urrats esanguratsuak izan daitezke. Hori dela eta, egindako jarduerak bakoitzari bere balioa ematen ikasi behar dugula aldarrikatzekoa da. Horretarako, beharrezkoa izaten da lortu nahi ditugun helburuak argi izatea hasieratik, helmugara iristeko bidea esanahiduna bihurtzeko.

Amaitzeko, aipatutako guztia kontuan izanik eta emozioen testuinguruan oinarrituta, emozioen lanketa ezinbestekoa dela begibistakoa da hurrei hezkuntza sakon eta osotasuneko bat izateko aukera emateko. Baina, argi dago prozesu hau luzea eta gorabeheratsua dela eta ondorioz eskolan dena kontrolpean izatearen ideari uko egin behar diogula aldarrikatzekoa da. Urratsak praktikaren eta erabileraren bitartez ematen direla ikustarazi behar dugu. Eraldaketa batek bere denbora eskatzen du eta transformazio prozesu honetan parte hartzen dugunok irekiak aurkeztu behar gara edozein egoeretara, gure pentsamenduak eta gorputzak aske utzi, gure buruari eta ondokoari entzun eta baita elkarrekiko errespetuaz elkar zaindu ere. Musikaz eta emozioz koloreztatu ditzagun gure bizitzak.

## **7. ETIKA PROFESIONALA ETA ADITUEN BABESA**

GrAL hau egiterakoan etika profesionalak eskatzen dituen prozedurak jarraitu dira une oro, baita datuen babeserako legeak zehazten dituenak ere. Ekintzaren subjektu izandakoen giza eskubideak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean enuntziatutako eskubideen arabera bermatu dira, hauen interesak lehenetsiz eta haien autonomia eta askatasuna errespetatuz.

Proiektu honetan lanean jardun diren partaideak anonimotasunean gordeko dira, lan honetan nork parte hartu duen jakitea baino garrantzitsuagoak baitira ateratako ondorioak. Era berean, ikasleek emandako iritziak ere anonimotasunean mantenduko dira, partaide guztiak borondatezkoak izan direlako eta hauek helarazitako sententzio, iritzi edota iradokizunak modu askea eman direlako.

Aipatzekoa da, bai eskolak eta baita bertako eragileek ere proiektu honen berri izan dutela uneoro. Lortutako datu guztiak, partaideen eskutik zein zentroko gainerako kideengandik, lan hau aurrera eramateko baino ez dira erabiliak izango. Lana osatzerakoan jaso eta erabilitako informazio guztia modu arduratsuan erabili da datuen babeserako legearen oinarriak jarraitu direlarik.

## 8. BIBLIOGRAFIA

- Albornoz, Y. (2009). Emoción, música y aprendizaje significativo. *Educere*, 13(44), 67-73.
- Ardiles, H. (2011). *La vida en mis cuerpos*. Dunken.
- Arriaga, C., De Alba, B., Totoricagüena, M. eta Cuadrado, F. J. (2017). Historias que emocionan: grabación, creación y edición sonora como experiencia colaborativa en la Universidad. *DEDiCA. Revista de educação e humanidades*, 12, 131-153. <https://doi.org/10.30827/dreh.v0i12.6785>
- Arriaga, C., Macazaga, A.M. eta Baza, A.V. (2020). Expresión, música y movimiento en la formación inicial del profesorado. *ENSAYOS, Revista de la Facultad de Educación de Albacete*, 35(1). <https://doi.org/10.18239/ensayos.v35i1.2258>
- Biesta, G.J. (2017). *El bello riesgo de educar*. SM.
- Bisquerra, R. (2000). *Educación emocional y bienestar*. Praxis.
- Bisquerra, R. (2005). La educación emocional en la formación del profesorado. *Revista interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 19(3), 95-114.
- Buzzian, Y. eta Herrera, L. (2014). Música y emociones en niños de 4 a 8 años. *DEDiCA. Revista de educação e humanidades*, 6, 199-218. <https://doi.org/10.30827/dreh.v0i6.6973>
- Cabedo, A. eta Díaz, M.(2015). Arte y música en la educación obligatoria, algo más que un detalle curricular de buen tono. *Remie. Multidisciplinary Journal of Educational Research*, 5(3), 268-295. doi:10.17583/remie.2015.1555
- Cabello, M. J. (2011). Importancia de la inteligencia emocional como contribución al desarrollo integral de los niños/as de educación infantil. *Pedagogía magna*, 11, 178-188.
- Campayo, E. eta Cabedo, A. (2016). Música y competencias emocionales: posibles implicaciones para la mejora de la educación musical. *Revista Electrónica Complutense de Investigación en Educación Musical - RECIEM*, 13, 124-139. <https://doi.org/10.5209/RECIEM.51864>
- Carr, W. eta Kemmis, S. (1988). *Teoría crítica de la enseñanza: la investigación-acción en la formación del profesorado*. Martínez Roca.
- Conejero, S., Pascual, A. eta Etxebarria, I. (2007). Emozioei begirada psikologikoa. *Uztaro*, 63, 77-89.

- Conejo, P. A. (2012). El valor formativo de la música para la educación en valores. *DEDiCA. Revista de Educação e Humanidades*, 2, 263-278. <https://doi.org/10.30827/dreh.v0i2.7133>
- Duncan, N. (2007). Trabajar con las Emociones en Arteterapia. *Arteterapia. Papeles de arteterapia y educación artística para la inclusión social*, 2, 39-49. <https://revistas.ucm.es/index.php/ARTE/article/view/ARTE0707110039A>
- Elliott, D. J. (1995). *Music Matters: A New Philosophy of Music Education*. Oxford University Press.
- Fernández, P. eta Extremera, N. (2002). La inteligencia emocional como una habilidad esencial en la escuela. *Revista Iberoamericana de Educación*, 29(1), 1-6. <https://doi.org/10.35362/rie2912869>
- Fernández, A. eta Jorquera, M.C. (2017). El sentido de la educación musical en una educación concebida como motor de la economía del conocimiento: una propuesta de marco filosófico. *Revista Electrónica Complutense de Investigación en Educación Musical - RECIEM*, 14, 95-107. <https://doi.org/10.5209/RECIEM.54834>
- García, J. Á. (2012). La educación emocional, su importancia en el proceso de aprendizaje. *Educación*, 36(1), 1-24.
- Garzarelli, J. G. (2011). La música como lenguaje universal. In: VOLPI, José Henrique; VOLPI, Sandra Mara (Org.). *Anais. 16º Congresso Brasileiro de Psicoterapias Corporais*. Curitiba
- Goleman, D. (1996). *Inteligencia Emocional*. Kairos.
- Igartua, J., Álvarez, J. eta Páez, D. (1994). Música, Imagen y Emoción: Una Perspectiva Vigostkiana. *Psicothema*, 6(3), 347-356.
- Iraurgi, N. (2015eko ekainak 19). Emozioen garrantzia. *Guaixe*. <https://guaixe.eus/sakana/1434524504120-emozioengarrantzia>
- Johannes, J. (2010ko abuztuak 4). El verdadero concepto de música. [Sarrera blog batean] <http://elverdaderoconceptodemusic.blogspot.com/>
- Juslin, P. N. (2003). Five Facets of Musical Expression: A Psychologist's Perspective on Music Performance. *Psychology of Music*, 31(3), 273-302. <https://doi.org/10.1177/03057356030313003>
- López, È. (2005). La educación emocional en la educación infantil. *Revista interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 19(3), 153-167.
- López, G. (2012). Pensamiento crítico en el aula. *Docencia e Investigación: revista de la Escuela Universitaria de Magisterio de Toledo*, 22, 41-60.
- Marina, J. A. eta Bernabeu, R. (2007). *Competencia social y ciudadana*. Alianza Editorial.



- Medinilla, C. (2009). La inteligencia emocional. *Revista Digital Innovación y Experiencias Educativas*, 22, 1-10.
- Mendizabal, I. (2017ko abenduak 1). Zer garrantzia dute emozioek ikaskuntza prozesuan?. *Hik Hasi*.  
[http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20171201/ITXARO\\_MENDIZABAL.\\_Zer\\_garrantzia\\_dute\\_emozioek\\_ikaskuntza\\_prozesuan\\_](http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20171201/ITXARO_MENDIZABAL._Zer_garrantzia_dute_emozioek_ikaskuntza_prozesuan_)
- Mosquera, I. (2013). Influencia de la música en las emociones. *Realitas, Revista de Ciencias Sociales, Humanas y Artes*, 1(2), 34-38.
- Ortega, P. (2005). Educación y conflicto. *Revista Galega do Ensino*, 13(45), 27-47.
- Panchi, W. E., Lara, L. D. R., Panchi, J. C., Panchi, R. C. eta Villavicencio, V. E. (2019). Influencia de la música en el desarrollo motriz y emocional en niños de 8-10 años. *Revista Cubana de Investigaciones Biomédicas*, 38(2), 104-121.
- Peñalba, A. (2017). La defensa de la educación musical desde las neurociencias. *Revista Electrónica Complutense de Investigación en Educación Musical*, 14, 109-127.  
<https://doi.org/10.5209/RECIEM.54814>
- Perrenoud, P. (2012). *Cuando la escuela pretende preparar la vida*. Morata.
- Rossi, V. (2006). *La vida en movimiento: El sistema río abierto*. Kier.
- Saarikallio, S. (2011). Music as emotional self-regulations throughout adulthood. *Psychology of Music*, 39(3), 307–327. <https://doi.org/10.1177/0305735610374894>
- Salovey, P. eta Mayer, J. D. (1990). Emotional intelligence. *Imagination, cognition and personality*, 9(3), 185-211. <https://doi.org/10.2190/DUGG-P24E-52WK-6CDG>
- Stokoe, P. (1990). *Expresión Corporal, Arte, Salud y Educación*. Humanitas.
- Touriñán, J. M. (2011). Claves para aproximarse a la educación artística en el sistema educativo: educación “por” las artes y educación “para” un arte. *Estudios sobre educación*, 21, 61-81.
- Touriñán, J.M. eta Longueira, S. (2009). Formación de criterio a favor de la música como ámbito de educación. *Bordón. Revista de Pedagogía*, 61(1), 43-59.
- Trujillo, E., Ceballos, E. M., Trujillo, M. C. eta Moral, C. (2020). El papel de las emociones en el aula de educación infantil. *Profesorado, Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 24(1), 226- 244. <https://doi.org/10.30827/profesorado.v24i1.8675>
- Valles, M.J. (2009). Música y educación. *Revista Electrónica de Desarrollo de Competencias (REDEC)*, 2(4).
- Yáñez, B. (2011). Musicoterapia en el paciente oncológico. *Cultura de los cuidados*, 15(29), 57-73.